

# Legazpiko Agenda 21eko Foroa

## 2013ko azaroaren 7ko tailerraren Akta

Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan egindako tailerra, 18:30etik 20:00etara



## Eskerrik asko!

M<sup>a</sup> Cruz Lizarazu • Manuel Fernandez (Nagusilan) • Montse Vallejo • Pilar Makibar • Floren Gutierrez • Juan Pedro Agirre • Esther Agirre • Rafael Gomez (Buskabaso) • Feli Nuñez • Juan Carlos Agirre • Arantxa Arizmendi (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Óscar Valbuena (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Javier Iraeta (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • M<sup>a</sup> Angeles Prieto (Buztintegi) • Maite Lombide • Ane Mendiñeta (Legazpiko Udaleko arkitektoa) • Inma Hernández (Legazpiko Udaleko iraunkortasun saileko eta Agenda 21eko teknikaria) • Igor Urrate (Legazpiko Udaleko zinegotzia) • Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea.

Etorri zaretelako, parte hartu duzuelako, egia esan duzuelako, adi egon zaretelako...eta gaurko tailerra saio berezia eta aberatsa izan dadin egin behar zen guztia egin duzuelako, **mila esker!!!**



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



# Hasteko, azken orduko berria

Inma Hernandez teknikariak, tailerrari hasiera ematen dion 'berriak' atalean, azken orduko berria eman dio taldeari:


Legazpi, Gipuzkoako "Bidezko merkataritzaren aldeko lehen udalerrria" izendatu da.

Zorionak!!!

Aitorpen hori "Emaus Fundacio social" erakundeak emandakoa da eta azkeneko urteotan Legazpi izendapen hori lortzeko bete beharreko 5 baldintza bete dituela esan nahi du. Hauek dira 5 baldintza horiek:

- Udalak bidezko merkataritzako produktuak sustatzea.
- Herriko dendetan eta jatetxeetan bidezko merkataritzako produktuak eskaintzea.
- Udalerrriko enpresek eta elkarteek produktu horiek kontsumitzea.
- Gaiari buruz sentsibilizazio-ekintzak antolatzea.
- Eta hori guztia lortzeko egingo diren ekintzak koordinatuko dituen taldea osatzea.

Guzti horretaz, bihar, azaroak 8, hitz egingo da Gizarte-zentroko tabernan arratsaldeko 15:00etatik 16:30era egingo den **kafe berriketaldian**. Hauxe izango da gaia: Zergatik da bidezkoa bidezko merkataritza?




Denok zaudete gonbidatuta!

# Gaurko gaia: Legazpiko ondare industrialarekin jarraitzen dugu

## Erronka

Joan den irailaren 26an egin genuen tailerrean hasi ginen gaia lantzen eta segidan, tailer hark eman zuenaren laburpena eskainiko dugu:

- Legazpik **estatu mailan interes nabarmeneko 100 elementuen artean dagoen ondare industrial**a du eta ondare hori Euskal Herriko 10 azpimarragarrienen artean dago.



- Gaur egun ondare hori ia ezezaguna da eta ez da oso baloratua udalerrian; ondare hori Legazpiko Udala egiten ari den katalogatutako ondarea babesteko eta gordetzeko planaren aurkezpenean ezagutu dute gaian adituak direnak eta benetan harrিতa geratu dira.

Testuinguru horretan, Tokiko Agenda 21eko Foroak eta legazpiarrek duten **erronka** ondoko hau da:

**Nola eman dezakegu ezagutzera eta nola balioetsi gure ondare industrial?**  
Komunikazioari dagokionez, zer egin dezakegu?

Taldeak galdera horri **bi urratsetan** erantzun nahi izan du.

1. Lehenengo urratsean ondoko 3 galdera erantzun ditugu:




Iraganean –“**atzo-**“, ¿nola bizi zenuten ondare industrial hori?  
Nola bizi duzue **gaur**?  
Nola nahi zenukete bizi **etorkizunean**?

2. Eta ibilbide hori osatu ondoren, hurrengo urratsari ekin diogu eta ondoko galdera egin diogu gure buruari:

Ondare hori legazpiarrei ezagutzera emateko ardurak izango bagenu, zer esango genieke?, zein mezu azpimarratuko genuke?, ze komunikazio-ekintza izan daitezke eraginkorrenak?

## 1. urratsa. “Atzo, gaur eta etorkizunean” bizipenaren ibilbidea

Gaurko saioan aurreko tailerlean hasi genuen ibilbidea osatu dugu (aurreko tailerlean “iragana” eztabaidatu genuen). Eta hori guztia modu atseginean, aberatsean eta garbian egin dugu.



## Nola bizi zenuten “atzo” Legazpiko ondare industrialia?

“Atzo”

Estetikari dagokionez:

- Ez zen itsusia eta ez zen polita.
- Batzuk herriaren sarrera itsusia ikusten genuen.

Garai hartan Legazpi hainbat elementu nagusik osatzen zuten:

- “Fabrika”: bizitza eta udalerriko portaera sozialak markatu zuen elementua. Horrek bazuen aurrekari garrantzitsua, aurretik zegoen ondarea (burdinolak....). Gainera, haren indarrak –monopolioa zen- garai hartan egon zitezkeen ekimen partikularrak frenatu zituen.
- “Kalea”, edo hirigunea: herriaren erdialdea eta Kale Nagusia, batik bat.
- “Auzoa”, garai hartan bizi-kalitatearekin lotzen zen, etxebizitzak onak zirelako eta espazio publiko ederra zegoelako. Eta horietatik “hoberena” San Ignazio omen zen.
- “Zelaiak”, herriaren eta landa-eremuaren artean zegoena.
- “Fabrikaren tutuak”, eragin handia zuen jendearen erritmoan eta kaleko bizitzan.

Hiri-eremuaren eta eraikinen kalitateari dagokionez:

- Patrizioak egindako etxebizitzak erosoak ziren; auzoak ondo zeuden.
- Hainbat pertsonen iritziz, “aurrerapena” izan zen eta aurreratuago geunden inguruko udalerriekin alderatuta.

Laburtuz, herria Patrizio zen eta hori pertsona bakoitzaren ikuspegitik –eskertzea, beldurra, gaitzespena-...

Kanpotik (beste udalerrietatik) nola ikusten gintuzten galderari dagokionez, iritzi desberdinak zeuden:

- Batzuk: “fabrika itsusi hori duen herria” edo “zein gaizki Legazpikoa izatea”;
- Beste batzuk: Patrizioarekiko eta Legazpiko bizi-baldintzekiko miresmena.

Aldaketa 70. hamarkadan etorri zen:

- Neurririk gabeko hazkundearekin, denak elkar ezagutzen genuen “txikia eta bildua” zen herria izatetik hurbiltasun hori galtzera iritsi ginen.

Jauzi egiten dugu eta gaurko egunean jarriko dugu gure burua.

*Nola bizi dugu eta jasotzen dugu gaur industria-eremua? Eta auzoak? Nola ikusten dugu ondare hori gaur?*

Gaur

## Nola bizi duzue “gaur”?

Oro har, bizimoduari dagokionez (garai hura gaurkoarekin alderatuz):

- Askatuta eta lanari dagokionez erantzukizun handiagorekin: gaur egun ez gaude “fabrikaren” mende, eta era berean horrek erantzuleago egiten gaitu gure erabakietan.
- Nostalgia ere badugu, kaleko bizitza galdu egin delako. Garai haietan tutuak jotzen zuenean handia izaten zen kaleko mugimendua eta giroa; emakumeak kalera irteten ziren, elkarrekin egon,.....
- Legazpin gaur berdintasun handiagoa dago; garai hartan gizartea klasistagoa zen (gizarte-maila desberdinak auzo desberdinetan bereizten ziren: ingeniariak, langileak,...).

Industria- eta ekoizpen-ehunaren bilakaerari dagokionez:

- Industria desagertzeak tristura dakar. “Fabrika” desagertzeak eragina izan du herrian. Adibidez, gaur egun, fabrika zegoen tokian hutsik daude pabilioi asko.
- Eta era berean, egia da ekoizpen-ehunaren aniztasuna handitu egin dela (“lehen 3.000 langile zituen enpresa bakarra zegoen eta hobe da 100 langileko 30 enpresa egotea”).
- Lana duen Legazpiko biztanleriaren panorama ere aldatu egin da. Lehen denek egiten zuten hemen lan, herrian; orain asko dira kanpora doazenak.

Ondare industrialak osatzen duten auzoak:

- Oso ongi ikusiak diren auzoak dira, bizi-kalitate ona eskaintzen delako bertan: lasaitasuna, ingurune naturala, eguzkitsuak,...
- Eta era berean bertan bizi direnek ez dute oinarritzko zerbitzu asko.  
Azkeneko urteotan gauza batzuk hobetu badira ere –adibidez, “Junetorri” autobusa edo igogailua-, ez dituzte bestelako oinarritzko zerbitzuak, hala nola:
  - Atarietara eta etxebizitzetarako sartzeko erraztasunak –askok ez dute igogailurik, zenbait kasutan larrialdietarako zerbitzuek (anbulantzia) ezin dute bertaraino iritsi,...-.
  - Denda txikiak –“lo egiteko auzoak” dira, agian bertan bizi direnen bizimoduarengatik-.
- Dena den, auzoak ez daude hutsik eta bertan belaunaldien arteko erreleboa ematen ari dela ikusten da. Horretarako arrazoiak desberdinak izan daitezke:
  - Gurasoak kalera (hirigunera) jaisten dira eta euren etxeak seme-alabei uzten diete.
  - Gazteek auzoetako etxeak erosten dituzte merkeagoak direlako –gero berritze-lan batzuk egin behar badituzte ere-.



## Nola bizi duzue “gaur”?

Eta ondare industrialaren gaineko bi kontu garrantzitsu:

- Legazpiar askok ez dute ondare hori ezagutzen, pabilioiak, haien ezaugarriak,... Eta gutxien ezagutzen dutenak emakumeak dira (garai hartan gizonezkoek behintzat harreman zuzena zutelako ingurune harekin).
- Udalerriko sarrerari buruz galdetzean, desberdinak eta osagarriak dira iritziak: “itsusia da” (batik bat kanpotik datozenentzako), “gurea da”, “ohituta gaude”...



Eta azkenik, taldeak “etorkizunaz” hausnartu du. Eta interesgarria izan da eztabaida; ondarea zaintzearen eta haren bilakaeraren gaineko debatea izan da:

*Ondare hori –eraikin industrialak eta etxebizitzak– mantendu behar ditugu eta oinordetzan uzteko erantzukizuna dugu? Zein baldintzatan? Guzti horretan nola eragiten du gaur bizi dugun krisiak?...*

## Eta nola biz nahiko genuke onare hori “etorkizunean”?

Taldeko debateak eman dituen lehenengo emaitza batzuk:

- Lotura “afektiboa” desberdina da ondare industrialak izan –industria pabilioiak, “fabrika”– edo auzoak izan.  
Partaide izate sentimendu hori auzoetan mantentzen da: “hemen bizi gara”.  
Baina pabilioien kasuan ez da ematen: “fabrikan egin nuen lan; fabrika hori itxi egin zen eta itxi zenean ez zitzaien inporta; beraz, zergatik izan behar du inportantea niretzat? Zerk lotzen gaitu orain fabrikarekin?”
- Udalerrian, ondare hori osatzen duen lurzoru industrial pribatuarekin zer egin behar den eztabaidatzea falta zaigu. Jabego pribatukoak direla kontuan hartuz, eraikinak mantendu egin behar ditugu barruko erabilera sustatzeko? (kontu korapilatsua da hori) Edo dena edo zati bat bota egin behar dugu eta sor daitekeen “orube garbian” produkzio-jarduerak bultzatu?

Etorki-  
zunean

## Eta nola biz nahiko genuke onare hori “etorkizunean”?

Taldeak nahiko garbi ezarri ditu irizpideak etorkizunari begira:

- Auzoei dagokienez, inportantea da dauden bezala mantentzea, haien identitatea zainduz eta bertan dauden zerbitzuak hobetuz.
- Pabilioiei dagokienez, aldatu egiten da kontua: erabilerarik gabeko ondarea izateak – pabilioiak- ez du zentzurik. “Mantentzea mantentzeagatik, ez”. Beraz, erabilera eman behar zaie, hori da funtsezkoa...

Eta azkeneko hausnarketa:

- “Agian etorkizunean gehiago balioetsiko da ondare industriala –hau da, pabiloiena–...”

“Sakoneko” hausnarketa horiek egin ondoren ondoko galdera egin dugu:

## 2. urratsa. Horrekin guztiarekin, ondare industriala legazpiarrei ezagutzera ematea baldin bada gure helburua zein mezu azpimarratuko zenuke?

Aurreko hausnarketaren harira, taldeak desberdindu egin du auzoei eta industria-eremuari eman beharko zaion tratamendua:

Auzoen kasuan



Taldearen ustez, auzoetan bizi direnei eta, oro har, legazpiarrei transmititu behar zaiena mezu “**sorta**” bat da. Hauek dira sorta hori osatzen duten kontzeptuak:

- **Ideia indartsua:** “Auzo horiek estatu mailan interes nabarmeneko 100 elementuen artean dagoen ondare industriaren zati dira; eta hobetu eta eguneratu egin nahi ditugu baina haien identitatea gordez.
- **Laguntzako neurriak,** Udalak laguntzak eskaini behar ditu edo ekimen berriak burutu auzo horietako bizi-baldintzak hobetzeko.

Eta moduari dagokionez, “nola” egin, hona hemen ideia bat:

- **Bisita gidatuak** antolatu auzoak ezagutzeko, erakusketaren bat egin....



Industria-  
eremuaren  
kasuan



Kasu honetan, taldeak argi du: inportanteena eta lehentasunezkoa ezagutzera ematea da. Nola? Adibidez:

- **Bisita gidatuak** antolatuz, bere garaian pabilioi horietan lan egin zuten pertsonen parte hartzearekin eta haien azalpenekin.

Eta gero ikusiko da legazpiarrek eremu hori babestea sustatzen duten, nola egingo duten hori,... Eta hori lehen egin dugun hausnarketarekin batera erabaki beharko da.

Eta puntu honetara iritsita, taldea zoriontzea falta zaigu bakarrik.... Gaur, bikain egin duzue! Tailer honetatik pisuzko hausnarketekin egingo dugu alde, etorkizunari begirako irizpideak ere jaso ditugu eta komunikatzeko ideiak ere ez dira falta izan.... Demasa izan da!

10eko bat merezi duzue. **Eskerrik asko!!!** Foro hau bai dela ondarea!

Eta guzti horrekin hemen amaitzen dugu. Noiz arte?

## Gure hurrengo hitzordua: abenduaren 12an izango da

Aurtengo 2013ko Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Foroaren azkeneko tailerra izango da.

Eta badugu gaia: **Santikutz kalea berritzeko** Udaleko Hirigintza departamentuak prestatu duen proiektua landuko dugu. Proiektu hori lehentasunezko inbertsio-proiektua zela esan genuen Agenda 21eko Foroak urte hasieran egin zuen tailerrean.

Beraz,... izuekin kontaktzen dugu!

Ordura arte, ondo bizi!!!  
**Gracias, eskerrik asko!**